

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko uztailak 23

201. zenb.

Elkarrizketa
**Roneko
hezurrak
aztertzen**

Etorkinen gurasoak

Halabeharrez mondrauetar

Otamendi (San Andres) (II)

Otamendiko Kurtzetxikire begire dauen etxebizitzan Paulo Bolinaga Injidua 81 urtekoa aurkitu gauen.

Bere aitte Juane Bolinaga Ezpeleta bertako semie zan eta ama Maria Indijua Errasti Arientzako Intxaubekue (albokuekin primo eitten die amak ahiztak zielako).

Aitte-amak beti basarriko lanetara dedikau izen zien eta bertatik atara bizimodue.

Paulo ta, 14 anaia-arreba izen die. Euretarike batzuk hostalaritza inguruko lanetan jardundekuek die, Donostian, Brasilen, barkuetan, Fuengirolan, etab.

Paulo 43 urte arte pastore ibili zan Degurixan eta Kurtzetxikiko terreno komunaletan eta, harik eta azken honeik esku partikularretara pasau arte.



sau arte.

Bere artzai denporan 140 ardi inguru eukitten zittuen. Goguen dauko orduen gazteiek eta billotsak eitten euen preziue: gaztaie kilue 5 errietan saltzen zan eta billotsa Paskuetan 2 pezetan kilue eta bestela 7 errietan.

Inguru honetan bi zien pastore ebillten zienak, berau eta Maalbekue.

Paulok Degurixan txabollie euken Apotzako Zelaakuekin batera.

1930 inguruen Mundraueko kalien einddeko karrera baten parte hartu eben. Ez parte hartu bakarrik, baitte irabazi be, bigarren Musakolako Etxabe eta hirugarren Uribetxebarria ("Tati") geratu ziela.

Gazte denporan, 22 urte

inguruin, behin oinez Loyolaraino fan zan lagunekin eta beste behin Ezkiogako ama birjiñie agertu zan lekura.

Gazte denporetako beste gomuta bat gomazko lelengo abarkak zelan eitten zittuenekue da, automobilen errueren kubieta zaharrakin.

Eurendako narruzko abarken aldien egundoko aurrerapena izen zan.



LORAMENDI KIROLAK

Oporretan kirola lagun

Abuztuan
Loramendi
zurekin!!

Hirugarren astea bakarrik itxita (16tik-23ra)

Ondo Pasau!!

Maiatzaren Lehena Plaza Tfnoa: 79 97 24



Abuztuan zatoz

ZUHAITZ

jatetxera!



GATZAGAN



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

VE ECUADOR


Bidaiak

Kontzeiño, 2
ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Alfabetatuaren uztailaren 10eko irakurketa alfabetikoa

A-ri dagokionez Azala irakur dezake irakurle alfabetatuak; egunkariak bere Azalean atzoko egunean izaniko notizia nagusienen berri ematen dio. Irakurleak inongo hausnarketarik egin gabe nagusiztat hartzen ditu egunkariaren Azalean agertutakoak.

B-ra helduz, Boris Ieltsin irakurri ahal du, GTKo Tokioko gailurrean. Boris Ieltsinen aldeko erronkari eutsi diote Goi buruzagiek. Munduko zazpi herrialde industrializatuenetako buruzagiek Errusiari, eta batez ere Boris Ieltsini baldintzazabeko laguntza eskaini zioten atzo Tokion.

Tokiotik Frantziara eramaten du alfabetoak, han baitago C-ko Cipollini, berriro ere Tourreko liderra.

Frantziatik gertu, Draskovic-eren **D**-a da notizia, Draskovic-ek gose greban segitzen du Belgradon, bere osasun egoera okerragoa den arren. Draskovic Serbiako oposizioko buruzagi nagusia dugu eta gose greban segituko du bere emaztea Danica askatu arte.

EKBko (Euskal Kulturaren Batzarrea) **E**-k erakartzen du irakulearen arreta, elkarte honek "euskal eskolaren aldeko batasunerako deia" egin baitu.

F-ri jaramonik egin gabe **G**-ra abiatu da irakurleak, Gonzalezen Ga baitu zain. Felipe Gonzalez hautatu dute gobernu buru EAJ eta CIUei esker lehen bozketan.

H-n Hosni Mubarak du, Egiptoko lehendakaria. Hosni Mubarak Algeriako mugimendu militante islamikoaren aurkako errepresioari jarraitu dio, herenean Gamaa al Islamiako zazpi kideei heriotz zigorra ezarri eta gero.

Htik **I**-ra helduz, Iglesias du hurrengo. Julio Iglesias bahitutako



ingeniarria. Ikusi enpresako langileek hamar minutuko lanuztea egin zuten atzo eguerdian haren askatasuna eskatzeko.

Jo ta **Ke** elkarrekin doazela eta San Ferminak etorri zaizkio gogora irakurleari, eta bere pentsamendu alfabetatuarekin Iruñea egin du jauzi.

L-ra helduz, Limara abiatu da. Bertan giza arrastoak aurkitu zituzten atzo Limako inguruetan. Aurkikuntza honek bertako populazioa aztoratu du, eta gogora ekarri ditu desagertuak eta eparirik gabe exekutatu zituzten 10 lagun kasua.

Perutik Erresuma Batura doa, bertan **M**ajorren **M**-a baitu. John Major Erresuma Batuko lehen ministroak inoiz izan duen arrakasta txikiena du.

N, **Ñ**, **O**-ri jaramonik egin gabe **P**-rekin egin du topo irakurleak. Pilota sailean: Uriarte eta Txikito Bolibar aurrez aurre gaur Ezkurdin. Euskadiko zestako buruz buruko txapelketaren azken faseko aurreneko partidua.

Serraren **S**-a du hurrengo: Arturo Serra seikote valentziarrak irabazi baitu aurtengo Jazz Taldeen leihaketa Getxoko XVII Jazzaldian.

T-ra helduz **T**. S. Elioten 40 poema ezezagun aurkitu ditu bere alargunak. Poema hauek guztiak laster emango dira argitara.

U-ra heldu eta **X**ztailaren 10ean dagoela konturatu da irakurlea.

Ondoren **V**-ra pasa da eta euskal alfabetoan hizki hau arrotza izan arren, Volkswagen markaren izena izanik, ezin ezikusia egin beroni buruzko berria: Volkswagen konpainiak ez du "oraingoz" Zornotzan auto lantegi berririk jarriko.

X, **Y** eta **Z** irakurri ditu hizki-saldan hurrenez hurren irakurle alfabetatuak. Azkenik, alfabetoarekin bukatu duela oharuta, telebista piztu du.

MATILDE SAINZ OSINAGA

• ARRASATE PRESS •


Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1-20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40
Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitateak:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larranaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kapi, Daniel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

ARRASATE PRESek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Arantzasu



ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

ABUZTUAN ERE ZABALIK!



• Eguneko menua

• Asteburueta menu berezia

• Paregabekak karta

RUTH GATZAGA

Olarre kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE

Memesa

79 42 22

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Preso baino gehiago, bahitu politikoak

Pertsona bat juzgatua, errudun aurkitua eta kondenatua denean, askatasun eskubidea galtzen du epaileak ezarritako denborarepean. Demokratizatzen ematen diren gizarteetan pertsona hauen beste eskubide guztiak errespetatuak izaten dira. Euskal preso politikoen kasuan eskubide hauek arbitrarioki erabiliak dira, ezereztatuak ez direnean.

1980ko hamarkadaren amaieran estatu espainoleko Justizia eta Barne sailek proiektu berri bat diseinatu eta martxan jarri zuten, euskal presoenganako elkartasun ingurunea apurtu eta isolaturik, haien koesio politikoa birrintzeko asmoz, **dispersioa**. Espetxe klasikoak, ia denok buruan dugun arketipoa, urteak dira ez dela esistitzen **dispersioko** presoentzat.

Ba al zenekien dispersio gartzeletan presoak moduloka sakabanatuak direla, ordu luzeak eman daitezkeela oheko barra bati edo lurreko rejilla bati loturik, bakarti eta bilusik. Eta egun osoa eman daitekeela jan gabe, funtzionariak ez direlako "gogorazten" existitzen denik?? Ba al zenekien ia edozein momentutan eta kontinuoki trasladatuak direla ziegaz ziega, moduloz modulo, espetxez espetxe, eta aldaketa hauekin bilatzen dutena presoan denbora apurtzea dela, pertsona apurtzea bezala dena?

Horrelako errealitatean presoak ez du momentu pertsonalik; pertsona ia ez da pertsona, pasatakoaren eta datorrenaren beldur besterik ez da. Hurrengokoa nora eramango naute? Zenbat mesprezu, irain edo jipoi jasan izan beharko dut? Loak hartzen utziko al naute?

Eta guzti honek senideengan duen islada nolakoa den??

Atzenengo denboretan **traslado-paliza** modalidadeak, tortura modalidade berriak, euskal presoek sufritzen dituzten erasoak gehitu ditu. Dagoeneko 1993an 36 jipoi ezagutuak izan dira. 36 jipoi 22 preso politikori. Guzti hau babestua izaten da ixiltasunarekin, demokratikoki justifikatua ez denean.

Alderdi politiko, instituzio, komunikabide:

— Zergatik estaltzen duzue errealitate hau?

— Zergatik mutu guzti honen aurrean?

— Zergatik ez dituzue gizaki guztien giza eskubideak defendatzen??

Eta zuk, zer diozu honen aurrean?

**GOIO ETXABE,
AMNISTIAREN ALDEKO
BATZORDEETAKO PARTAIDEA**

Irailera arte!

Eskuarteaz duzun hau da, irakurle, oporren aurreko azken irailaren 3an zurekin izango gara osterara. Bitartean, ondo pasau, eta bueltara arte.

Gogoratu, gustora hartuko dugula zure oporretatik bidalitako postala. Lehiaketa duzu zure zain!!

Tolerantzia beharra

Zutik eta Hautsi"k **ARRASATE PRESSEKO** 200. zenbakiaren bidez arrasatearroi bidali zigun gutunak delitutzat jotzen zuen Ferrixalekuko zazpi "okupa"-tzaileen kanporaketa.

Kalifikazio honek garbitzen du idazkiko argudioen oinarri eskasa.

Bizitza autonomoa hasi nahi eta etxebizitzarik ez duen gazte askorentzat oso larria den egoeran oinarrituz, ondorio okerrak ateratzen ditu.

Eskola-erakin berriekin beharrik ez dagoela aditzera ematea, Ferrixalekuan zer egin nahi den batere ez jakitea da, eskola-erabilera duen erakin bat behar akademiko berrietara egokitzea baino ez baita egin nahi. Proiektu hau ez da bapateko zerbait, justifikazio sendoa eta historia luzea duten azterketa eta akordioen ondorio baizik.

Hezkuntza pribatuaren zentzua zalantzan jartzen dutenekiko begirunez, berri ere errespetatzeko eskatzen diegu arrasatearren gehiengoak bere proiektu propio bat berpizteko hartutako erabakia.

Izan ere, proiektu hau gure ahalegin eta ilusio guztiaz eta poltsikoak hustuz egindako proiektua da, beste edozein baino herrikoia goa, beraz.

Udalak gehiengoaren borondatea onartu eta bideratu behar du, on publikoa zuzentasunez administratuz. Eta honengatik, ez du zentzurik Udalak Eskola Publikoa bakarrik bultzatu behar duen ala ez galdezka hasteak.

Benetako arazo batean oinarrituz, ez dago ezker-eskuin gauza guztiei erasotzerik. Eztabaida guztietan behar da zentzua eta tolerantzia.

MONDRAUETAR BATEK

Zer iritzi duzu Ferixalekuko etxeetako okupazioari buruz?



Pedro Pildain
Aurkiko langilea
(50 urte)

Niretzat hobeto kalera ateratzen badituzte. Niretzat ez dute inola ere eskubiderik edozein etxetan sartzeko.



Mertxe Penas
Etxekoandrea
(27 urte)

Ez badute etxerik, zer egingo dute, bada? Norbaitek eman beharko lituzte arazo honen erantzunak. Bestalde, jende asko dago egoera horretan, eta ez dira edozein etxetan sartzen.



Eneko Galdos
FPko ikaslea
(19 urte)

Arazo soziala da, eta ez zait txarto iruditzen okupek hartutako postura. Udalak kanpora ateratzeko hartu duen neurria ere ez zait ondo iruditzen.




Maria Josefa Fernandez
Etxekoandrea
(44 urte)

Ez dakit, zer pasatzen da, bada? Arrasaten bizi naiz, baina ez naiz ezertaz enteratu.



Amaia Oar
Langilea
(36 urte)

Tokiren bat izan beharko dute bizi izateko, ezta? Gaur egungo pisuen prezioak kontutan hartuz, ea nor sartzen da pisu berri batean...



Felix Palma
Ulgorreko langilea
(52 urte)

Zeintzuk? Ferixalekuok? Ez dakit, niri ez zait txarto iruditzen euren jokarea. Nonbaiten bizi beharko dute.



Lurdes Trojaola
Medikua (35 urte)

Etxebizitzak topatzeko bidea erraztu egin beharko litzateke nolabait. Etxebizitzak oso garesti daude, baina ez dakit, okupek aukeratutako bidea ere ez da egokiena, nire ustez.



Juan Antonio Gomez
Langabetua
(21 urte)

Ez naiz enteratu ere egin. Auzoan bertan bizi naiz eta ez dakit zer pasatu den. Egia esan, ez naiz enteratu ezertaz.

Abuztuaren
14tik 30era itxita!

FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguailatorria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udalzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monerron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 23
 Egunez: Español, Iturriotz.
 Gaez: Estella, Mabiategi.

Larunbata 24
 Egunez: Corcuera, Musakola.
 Gaez: Corcuera, Musakola.

Igandea 25
 Egunez: Amezua, Santamaina.
 Gaez: Amezua, Santamaina.

Astelehena 26
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.
 Gaez: Azkoaga, Ferrerías.

Asteartea 27
 Egunez: Español, Iturriotz.
 Gaez: Español, Iturriotz.

Asteazkena 28
 Egunez: Corcuera, Musakola.
 Gaez: Corcuera, Musakola.

Osteguna 29
 Egunez: Amezua, Santamaina.
 Gaez: Amezua, Santamaina.

23 OSTIRALA

ZINEA
 "Malcolm X" (9.30)

PINTURA ERAKUSKETA

Aita Menni Ospitaleko gaisoen pintura eta zeramika erakusketa ikusteko azken eguna. Arratsaldeko 8ak bitartean. Monterronen.

ROCK KONTZERTUA

"Die tester´s" taldearen rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean.

ROCK KONTZERTUA

"Fyaying Rebolos" taldearekin rock kontzertua. Gaueko 11etan. Elorrioko Kafe Ate-neon.

AKANPADA LEIXARGARA-TEN

Gazteentzako akanpada Leixargararen. Asteburu osoan, 25a bitartean.

24 LARUNBATA

ZINEA
 "La fuerza de uno" (5etan)
 "La chica del Ganster" (7.30, 10)

TXIRRINDULARI IRTEERA

Rivas de Tereso herrira txirrindulari irteera. Irteera: goizeko 8.30etan Eskoriatzako Plazatik. Interesatuok eman izena Zarautzitarra tabernan.

MUS TXAPELKETA

Mus txapelketa. Kajoi tabernan. Arratsaldeko 4etan. Rugby ekipoak antolatuta.

SASKIBALOI EKIPOAREN DENBORALDI AMAIERA

Saskibaloi ekipoaren denboraldi amaierako partidua, arratsaldeko 5etan, Musakolako kan-txan. Ondoren, afaria.

ALAI ZINEAN OPORRAK

Alai Zinea itxita egongo da datorren abuztuaren 4tik 27ra. Abuztuaren 28an hasiko ditu berriz pelikula emanaldiak. Egun horretan eta 29an, 30ean eta 31ean "Una proposición indecente" pelikula izango duzue ikusgai.

25 IGANDEA

ZINEA
 "La fuerza de uno" (5etan)
 "La chica del Ganster" (7.30, 10)

ARRABALEKO JAIK

Arrabalean hil diren guztien aldeko meza, 12etan San Frantziskon; Jubilatuz guztientzat Plus-Ultra tabernan luntxa, eguerdiko 1etan.

PINTURA ERAKUSKETA


Mari Karmen Garairen pintura erakusketa ikusteko azken eguna. Harresi Aretzan.

MUS TXAPELKETA

Rugby ekipoak mus txapelketa antolatu du datorren larubaterako. Zita Kajoi tabernan izango da eta bikote interesatuek 1.000 PTA ordaindu beharko dute, ordu erdi lehenago Kajoi, Iturriotz, Monte eta Ederra tabernetan. Bikote irabazleak 10.000 PTA jasoko ditu, bigarrenak 7.000 PTA eta hirugarrenak 5.000 PTA.

XABIER LIZARDI SARIA

Zarautzko Udalak, literaturarako Xabier Lizardi saria antolatu du. Jatorriz euskaraz idatziak izan beharko dira lanak eta argitaragabeak. Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago auzez dezake. Lan bakoitzaren hiru ale bidali beharko dira. Lanak auzezteko epea datorren irailaren 5ean bukatuko da eta lan guztiak Zarautzko Udaletxera bidali beharko dira. Sari banaketa azaroaren 26an egingo da. Irabazleak 300.000 PTA jasoko ditu.



ROCK KONTZERTUA: "DIE TESTER´S"

Gaur ostirala gaueko 9etatik aurrera kontzertu paregabea eskainiko dizue Arrasateko gaztetxeak. Ordu horretan, "Die tester´s" talde berlingarraren kontzertua hasiko da. Euskadira etortzen diren hirugarren aldia da oraingoa eta guztietan pasatu dira Arrasateko gaztetxetik. Punk-rock-ska-blues nahasten du musika talde ikusgarri honek. 13 pertsona eszenatikaren gainean. Musikaz aparte, hauen kontzertua show bihurtu daiteke.

26 ASTELEHENA**ZINEA**


"La chica del Ganster" (7,9.30)

FERRERIAS KALEKO JAIK

Etxafleruak, goizeko 8etan; txistularien kalejira, 12etan; haur jolasak, arratsaldeko 5etan; kaleko hildakoen aldeko meza, 7etan; herri poteoa, joku eta lehiaketak 7.30etan; herri afaria gaueko 9etan; musika 11etan.

ABUZTUAREN 24, 25, 26: SAN BARTOLOME JAIK

Abuztuaren 24, 25 eta 26an Uribarri auzoko San Bartolome jaiak ospatuko dira. Ekintza ugari egongo dira aukeran: pilota partidua, bertso saioak, umeentzako jolas bereziak, ezkon gabe eta ezkonduen arteko futbol partidua, mus txapelketa, bolo txapelketa... eta gauero dantzaldia talde desberdinen eskutik: "Gauero", "Errekalde anaiak" eta "Kaixo" taldeekin.

**ELBARRITUEN AKANPADA DEGURIXAN**


Datorren uztailaren 31etik abuztuaren 3a bitartean, Degurixako landan elbarrituak akanpada handi bat egingo da. Hainbat tokitako jendea egongo da Arrasatekoekin batera, Oñati, Donostia, Eskoriatatik adibidez. Prezioa 1.500 PTAKoa da eta guztira lau eguneko akanpada izango da. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, deitu telefono hauetara: 79 04 54 (Amaia) edo 79 31 01 (Ixabel).

27 ASTEARTEA**ZINEA**

"La chica del Ganster" (7,9.30)

FERRERIAS KALEKO JAIK

Astelehenean, uztailak 26, Ferrerías kaleko jaiak ospatuko dira. Goizeko 8etan hasiko dira ekintzak, 8etan etxafleruak jaurtiko dira, eguerdiko 12etan txistulariek kalejira egingo da. Arratsalde partean, 5etan haur jolasak, bonba japoniarrak, zaku lasterketa eta txokolatada umeentzat. Arratsaldeko 7etan ikurriña jaso, txistularien kalejira, herri poteoa eta umeentzako jolasak eta lasterketak burutuko dira. Gau partean, herri afaria egingo da 9etan eta gaueko 11etan musika saioa egongo da herriko talde batek girotuta.

28 ASTEAZKENA**29 OSTEGUNA****OPORRETARAKO LIBURU GOMENDATUAK**

Monterroneko helduen liburutegitik gomendatzen ditugun liburuak:

Literatura:

- SEPULVEDA, Luis: "Un viejo que leía novelas de amor", Tusquets.
- TOURNIER, Michel: "La gota de oro", Alfaguara.
- TOURNIER, Michel: "Medianoche de amor", Alfaguara.
- MUTIS, Alvaro: "Abdul Bashur, soñador de navíos", Siruela.
- ATXAGA, Benardo: "Behi euskaldun baten memoriak", Pamiela.
- RIVAS, Manuel: "Un millón de vacas", Ediciones B.
- MERIMEE, Prosper: "Carmen". Eman Bakia.
- BERGER, John: "Una vez en Europa", Alfaguara.
- STARK, Richard: "Ehiztaria".

Bestelakoak:

- GARCIA CALVO, Agustin: "Contra la paz. Contra de democracia", Virus.
- RICO, Lolo: "T.V.: Fábrica de mentiras", Espada Calpe.
- PENNAC, Daniel: "Como una novela", Anagrama.

Liburutegian prestatutako dossier infomatiboak:

- "Bidaiatzeko aldizkariak"
- "Abiadura Handiko trenak"
- "Yugoslavia eta Balkanetako gatazka"

Haur liburutegitik gomendatzen ditugun liburuak:

- HARTLIN, Peter: "Muletas", Alfaguara.
- SIERRA, FABRA, Jordi: "Banda sonora", Simela.
- ZUBIZARRETA, Patxi: "Gutun harrigarri bat", Elkar.
- LOPEZ ESCRIBA, Ana: "La familia de mia"
- ARIS, Calme: "Cuentos saharais", Amaya.
- MUJICA, Xabier: "Berritsu", Erein.
- JOVER, Lluisa: "Helados de verano, cremas de invierno", Pirene
- ORESSKER, Mija: "Txokolate garratza", Alfaguara.

“Zerbitzu sozialek, berez, ez dakarte irabazi ekonomikorik eta berez arazo hori konponduko duen beste erakunde motaren bat behar da, eta hor dago ekonomia soziala. Hain zuzen ere, irabazi ekonomikoak bakarrik bilatzen ez dituen enpresa batekin ez da indenifikatzen, hori ere bilatu arren. Adibide bat ikatzaren industria da, ekonomia sozialaren barruan egon daitekeena, herrialde batentzat interesgarria baita, ekonomikoki errentagarri izan ez arren. (...)

Ekologikoa deituko nukun formulazio batetarantz jo behar dugu, ekologia, bizitzaz gozatzeko guztiok dugun eskubide bezala ulertuta. ez dugu zertan gazteak lanik gabe egotera kondenatu. Hori ikuspegi globalista batetik egin dezakegu. Lanik ez dagoela ez da egia, baina banatu beharreko ondasun urria da lana. Alde ekonomikoa eta soziala kontutan izango dituen enpresa-optika batetik egin behar da hori. Badago errentagarri izatea, baina denok lan gutxiago egin ez. (...)

Kooperatibismoak Euskal Herrian goraldia izateko hiru faktore izan ziren: bata momentu ekonomikoa, autarkia eta kanpoko konpetentziarik eza, enpresa errentagarria sortzeko erraztasunekin. Beste aspektu bat, estratu sozial solidario bat bazegoela, lan sozial unitarioa egiteko aukera zegoen. Azkenik, eta garrantzitsuena, guzti hori garbi ikusi zuten lider jakin batzuk egon zirela. (...)

Kooperatibismoa irits daiteke punta puntako sektoreetara ere. Horri uko egitea hutsegitea dela uste dut gainera. Esparru horretan aritu daitezkeen bakarrak multinazional handiak direla uste izaten dugu, baina konpainia handien mastodonte motelagoa da mugimenduetarako eta gaur egun malgutasuna abantaila da. Kontua ez da kooperatibek hor egoteko gaitasuna dutela bakarrik, egin behar dutela baizik”.

Jose Mari Larrañagak

A NOSA TERRA

Igerri da krisia jendearen oporretan?

Agian jende gehiagok bidaia-tzen du, baina beharbada krisia nora joatean igartzen da. Beste urte batzuetan egin izan diren bidaia handietara joan beharrean, jendeak *charter*ak hartzen ditu, *charter*ak dauden puntuetara doa, Espainiako irletara eta. Destinoak hurbilagotu egin ditu jendeak. Horretan igerri da, baina agian jende gehiago dator, eta ikusten da ezinbestekoa dela aisialdia. Atzerrirako bidaietan Hegoamerikak galdu egin du pixkat, Ertamerikak ez horrenbeste, eta Estatu Batuetara dexente joango dira, bidaia garestia den arren, bertan egotea Europan baino merkeagoa izan daiteke eta.

Guk lan asko egin dugu. Batez ere 31 arte izango dugu. Krisiaren eraginetako bat jendeak azken unera arte itxoin duela izan da. Gaur egun inor ez dago oso libre bere ekonomiak joaten uzten dion jakiteko, enpresak dauden egoerarekin. Jendeak erabakia atzeratu egin du apur bat, eta horregatik zoramena ari da bihurtzen uztaila guretzat.

Bidaien eta turismoaren munduan ere krisia dago. Hori ukatzea inozokeria litzateke. Maioristak uztaila arte ofertak egiten aritu dira, eta uste dugu irailan ere antzera ibiliko direla, eta hori krisia dagoen sintoma argia da. Konpainiak beldur dira *charter*ak ez zaizkien beteko, eta horregatik ofertak. Abuztuaren 1etik 20ra izango da denboraldi altua, baina gero martxotik uztailera izan dugun erritmoan sartuko gara. Hau da, iaz 60.000 PTAtan zeuden bidaia merkeak, aurten erdi-prezioan egon dira, eta gero ere hala egongo dira.



Marife Calvo

Viajes Ecuador agentziakoa

Beti bezala, abuztuan zabalik !!!



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Iglesiasen bahiketa

Joan den ostiraleko plenoan, Julio Iglesias Zamora enpresari donostiarren bahiketa salatzen zuen mozio bat onartu zen. Mozioa EAJk aurkeztu zuen eta onartu egin zen, HBk aurka bozkatu arren. Iglesiasen askatasuna eskatzen zuen mozioak, eta aldi berean dei egiten die hiritarrei bahiketa hau salatzeke antolatutako ekintzetan parte hartzera. Plenoan onartutako erabakia prentsan publiko egiteko erabakia ere onartu zen, PSOEren proposamenez, eta sozialisten eta jeltzaleen botoez. Kasu honetan, EA eta EUE abstenitu egin ziren.

Txirrindularien istripuak

Igandean Deba Garaian izandako txirrindulari lasterketa batean, afizionatuentzako 46. Antzuolako Frogan, istripu ugari izan zen. DYako anbulantziek 11 txirrindulari hartu zituzten, hiru Arrasaten, bi Oñatitik jaisten, hiru Deskargatik Zumarragara eta lau Antzuolatik Bergara-ra auto baten kontra (txirrindulari bat auto barrura sartu zen kristala apurtuta). Inoiz ezagutu ez bezalako istripu mordo honengatik oso urduri ibili ziren txirrindulariak, eta antolakuntzaren aldetik errepidea egoki markatu barik zegoela adierazi zuten batzuek.



JOSEBA

Kooperatibisten Kongresua

Joan den asteko Kooperatiben IV. Kongresuan 373 ordezkariak ondo tratatuta zekartzaten gaiak, eta biltzar bakarra nahikoa izan zen aurkeztutako planak onartzeko. Hauen artean, garrantzitsuena 1993tik 96rako enpresa-politika markatzea izan zen. Aurrikuspenen argitan, MCCren arlo nagusien artean banaketa arloak (supermerkatuenak) ezagutuko du hazkunde handiena. Aldiz, sektore industrialak atzera egingo duela onartzen dute MCC taldeko arduradunek. Aurrikuspenetan, industria arloan 1.000 lanpostu galduko direla pentsatzen dute. Aldiz, banaketa arloan 7.800 lanpostu berri sortzea espero dute, eta horien artean 2.500 inguru kooperatibista berriak izango dira.

Lapurretan Kataiden

Joan den asteko ostira-lean bi pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak ustez Kataideko poligonoko enpresa batean ostutzeagatik. Aurreko astelehenean izan zen lapurreta, eta atxilotuak Joseba Gurutz S.A. bergarra (32 urte) eta Jose Luis G.U. arrasatearra (27 urte) dira. Lehenbizikoa enpresa berean berriro lapurretan egiten saiatu omen zen ostira-lean bertan. Ostuta eroan zituzten 700.000 PTak atzeman zizkien Ertzaintzak bi atxilotuei.

Gurutze Gorriaren tele-asistentzia

Pertsona edadetu, ezindu eta gaixoentzako asistentzia zerbitzu berri bat aurkeztu zuten Gurutze Gorriak Deba Garaiko gizarte-laguntzaileri astelehenean. Tele-asistentzia zerbitzuaren bitartez, bakarrik bizi diren pertsonak larrialdietarako telefono berezi baten eta lepotik eroango duten alarma aparailu baten laguntza izango dute. Arrasaten aparailurik instalatzen bada, San Prudentzioko Gurutze Gorriaren egoitzaetik joango

lirateke premietan asistentzia ematera. Larrialdiez gain, Gurutze Gorriak boluntario zerbitzua izango du: telefonoek nola funtzionatzen duten esplikatuak diete pertsona nagusiei, eta konpainia ere egingo diete. Premiazko kasuetan, doan izango da asistentzia, Diputazioaren diru-laguntzei esker, baina beren kasa zerbitzu hau lortu nahi duten partikularrek ere eskuratu ahal izango dute, kuota bat ordainduz gero.

JAIOTZAK

- Haizea Arriaran Azurmendi. Uztailaren 4ean.
- Jon Ander Alberdi Barnes. 7an.
- Lander Roteta Sainz-Hilare. 8an.
- Jone Martinez Etxebarria. 14ean.
- Solartze Artetxe Olabe. 14ean.
- Itsaso Diego Jauregi-Arraburu. 15ean.
- Unai Vela Tarragona. 15ean.
- Andoni Otxandiano Gallastegi. 16an.
- Asier Perez Iñuria. 16an.
- Aritz Olea Zurbano. 17an.

EZKONTZAK

- Lucio Castañeira & Virtudes Lopez. Maiatzaren 22an. Elizaz.
- Javier Ignacio Zubiaga & M^a Adelaida Silvar. Uztailaren 10ean. Zibilez.
- Eugenio Uribarren & Maria del Belvis Parto. 17an. Zibilez.
- Jose Mari Jauregialzo & M^a Arantzazu San Jose. 17an. Zibilez.
- Carlos Alberto Ferreira & M^a Angeles Hernandez. 17an. Zibilez.
- Jose Antonio Garcia & M^a del Carmen Fuentes. 17an. Elizaz.
- Francisco Barrionuevo Garcia & Agustina Sanz. 17an. Elizaz.
- Jose Maria Ugalde & Ruth Hernandez. 17an. Elizaz.


HILDAKOAK

- Carmen Sillero Martinez. Uztailaren 9an. 91 urte.
- Ma Amparo Trincado Baños. 12an. 78 urte.
- Maria Font Garriga. 13an. 75 urte.
- Eustaquio Barturen Palacios. 14an. 69 urte.
- Mercedes Iturburu Monzo. 19an. 83 urte.


PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA
 Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

Onduline TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak
 Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE



Oporretarako aholkuak

Udan zure ohizko etxebizitza utzi behar baduzu udan, izan kontuan hurrengokoa:

- Itxi ondo etxeko sarrera guztiak, baita lehioak eta garajeko sarrera ere.
- Ez utzi etxeko giltzak inork hartzeko moduan (felpudoan, buzoian...).
- Argindarra, ura eta gasa moztu.
- Aldamenekoari edo sende bati non egon zaitezkeen esan, premia kasuetarako.
- Pertsona horri berorri esan kartak buzoitik kentzeko.
- Baliozko onjetoak eroan (bitxiak, taloiak, dirua...).
- Lagunen batek noizbehinka etxea ikus dezan komeni da.
- Ahal delarik, ez komentatu ezezagunen aurrean kanpora noiz irten behar duzun, edo bidaiaren gorabeherarik (ze ibilgailu erabiliko duzun, nora zoazen, noiz itzuliko zaren...).
- Ez utzi notarik atean edo

abisurik erantzungailu automatikoan noiz itzuliko zaren esaten.

• Etxearen kanpoko itxura aldatzea komeni da, pertsianen altuera aldatuz, lorontziak jarriz...

Ibilgailuarekin bidaiari hasi baino lehenago:

- Aurretiaz prestatu bidaiari, trafiko gehieneko egun eta orduak ebitatuz. Ahal delarik, irteera atzeratzea eta itzulera aurreratzea komeni da.
- Ibilgailuaren segurtasun elementuak goitik behera begiratu (direkzioa, frenoak, erroberak, argiak eta seinale sistema).
- Karabanen bazoaz, behar ez den aurreraketarik ez egin.
- Aberia izanez gero, bide bazterrean edo, ahal bada, errepidetik kanpora kendu autoa lehenbailehen.
- Abiadura neurtu une orotan, trafikoaren ezaugarrien arabera. Segurtasun distantzia gorde, eta kaminoa txarto ba-

dago, tartea handitu.

- Zirkulazio eta Segurtasun Kodeko arauak bete.
- Alkohola edatea eta larregi jatea ebitatu, logurea dakar horrek.
- Neke edo ondoez sintoma txikiena igertzean, gelditu. Ez egin bidaiari tirada batean, atsedean hartu noizbehinkako geldialdiekin.
- Ekipaje larregi ez eroan, bisibilitatearen edo autoaren egonkortasunaren kalteetan izan ez dadin.

• Bigarren mailako errepideetan, edo arazo bako orduetan, ez lasaiago joan. Estatistikek agertzen dutenez, toki eta ordu horietan izaten da istripu gehien.

- Autopistaz bazoaz, eskumako bidetik joan, segurtasun tartea handitu eta manibrak aurretiaz iragarri.
- Segurtasun gerrikoa erabili beti, edo kaskoa, motorrez bazoaz. Izan gogoan 12 urte baino gutxiagoko umeak aurreko jarlekuetan eroatea debekatuta dagoela.
- Trafikoa eta errepideen egoeraren jakinaren gainean egon, SOS Deiak-era (088) deituta.

Zure oporlekuan, hondartza edo mendian, izan gogoan:

- Egiten dizkizuten oharrrak betetzea garrantzitsua da.
- Ez utzi ume txikirik ibilgailuaren barruan, ezta denbora gutxirako izanda ere.
- Ez utzi animaliarik apartatutako ibilgailuaren barruan.
- Ez utzi baliozko objektuak ibilgailuaren barruan begibistan.

* ARRASATEKO ERTZAINDEGIA

USTEAK USTE

BIDAIETAKO PUBLIZITATEA

Abuztuko oporraldiak. Norabait irten beharra. Betiko leloa: urtero beren oporrak garaiz, San Juanak baino askoz lehenago prestatu behar dituztenak, uztaileko azken astean egunkarietako iragarki, bidai agentzietako eskaparate eta buzoietara heldutako paskinei begirada, ustez, azken orduko "txolloen" azterketa eginez. Prezioen behe presioen eraginari esker, konklusioa honakoa da: benetan merezi duela itxoiteak.

Beste kontu bat da, ostera, erebakia hartu ostean bidaiari agentzietara joan eta erreserba egiteak sortzen duen bihotzerrea. Izan ere panfletoak zekarren prezioari ez dakit zenbat suplemento gaineratu behar zaizkion, klaro, abuztua abuztua da, abioien tarifak aldatu egin dira, pezetaren devaluazioaren zama, ... Finkatu duzun aurrekontuak gutxienez %20ko igoera jasan du dagoeneko.

Gezurrezko publizitaterik ez, mesedez.

JON GARAI

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Ikasketa berriez gain, datorren ikasturtean egoitza berria ere irekiko da.

Eskola: 50. urteurrena ospatzeko ikasturtea

Eskola Politeknikoak bere 50. urteurrena ospatuko du datorren ikasturte osoan zehar. Urriaren 10ean beteko da mende erdi, Jose Maria Arizmendiarrietak ikastetxea zabaldu zuenetik, orduko Biteriren eskoletan. 50 urte beranduago, dagoeneko fundatzailearen izena daukan Eskolak ekintza ugari prestatu ditu, eta datorren urtean egoitza berriaren inaugurazioarekin eta liburu baten kaleratzarekin biribilduko du urtemuga.

Ostiral honetan aurkeztu du Eskolak datorren ikasturterako ekintza egitaraua. Ospakizunak urriaren 7an hasiko dira, konferentzia batekin. Xabier Retegi Eskolako zuzendari eta lehendakari izandakoa (gauregun Jaurilaritzako industria sailburuorde) izango da hizlari, eta Jose Antonio Ardanza lehendakaria gonbidatu nagusia. Azaroan, Arizmendiarrietaren heriotzaren dataekin bat, omenezko ekintzak izango dira, eta abenduan, 'Gureskola' elkarteak aurkeztuko da, Eskola Politeknikoaren Lagunen Elkarteak.

Datorren urtean, erakusketa bat antola-

tuko da, ikus-entzuteko materialekin, eta *ate zabaleko* astea ere antolatuko da. Ikasturte amaieran, 'Eskola, 50 urte' liburua aurkeztuko da, eta unibertsitate eta enpresaren arteko elkarlanaren inguruko hitzaldi sorta bat egongo da, Europatik etorritako partehartzaileekin.

Urteurren hau prestatzen talde bat ibili da: lehengo eta gaurko irakasle eta ikasleek osatu dute, eta Jose Ramon Elorza da burua. Lana arloka banatu dute, eta liburua idazten, adibidez, Juanito Leibar eta Jose Migel Azkarate jarri dira. Urteurrena markatzeko anagrama bat ere diseinatu dute.

50 urte egin ondoren, Eskola aurrera doan seinale garbiena 94ko ekainaren 20an izango den eraikin berriaren inaugurazioa izango da. 1943an oinarritzeko heziketa profesionala eskaintzen hasi zen zentroa, europar mailako goi-injinerutza ematen hastear dago. Ikasketa berriak eta eraikin berria izango dira beraz, urrezko ezteietarako oparirik onena.

Zaborra eta isunak

Hamabost egun ez dira igaro alkatetzak zaborren ordutegi eta tokiak betetzeko eskatuz, eta dagoeneko arauak hausteagatik 28 denuntzia aurkeztu ditu udaltzaingoak. Lehenik eta behin, araua bete ez dutenei oharra pasako die udalak etxera, deskarguak edo alegazioak aurkez ditzaten. Horiek aztertu eta gero, kontrako erabakirik ez badago, isuna jarriko zaie: 5.000 pta lehenbizikoan, 10.000 errepikatzen dutenei.

Bestetik, Zarugalde kalean bilketa puntua tokiz aldatzea erabaki da. Lehen kalearen erdian zegoen, baina bilketa kamioiak arazo handiak zituen handik pasatzeko, eta horren ondorioz, bilketa puntu bi egongo dira aurrerantzean, kalearen bi ertzetan, kamioia Otalora kaletik pasa dadin.

Posta bidezko timoa

Posta bidezko timo edo txuliatze kasuak azaldu dira herrian, kaltetueta bategi ARRASATE PRESSEI salatu dionez. Hain zuzen ere, Samial izeneko enpresa batek ustezko zerga batzuen kobraketa fakturak bidaltzen ditu postaz, Haziendaren izenean, eta behin ordainketa egindakoan, lortzen dena aldizkari estraino baten harpidetza eta "idatzizko aholkularitza fiskal" zerbitzua da.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
7tik 25era itxita
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ARTOLA
KOMERTZIALA
Abuztuan
goizez zabalik
10etatik 1etara
Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40 ARRASATE

PUB HAIZEA
arrasate



Roneoko lantegian 76 langile kanporatzeko asmoa dauka UCEM korporazioak.

UCEM taldeko enpresen geroa oso ilun dago

Arrasateko hiru enpresa garrantzitsuren geroa oso ilun dagoela ikusi da aste honetan, UCEM Korporazioaren 1992ko balantzeak kaleratu direnean. Cerrajera, Transformados Metalicos eta Roneo enpresen jabe da UCEM eta 1992an, 6.761 milioi galdu zituen guztira.

Zulo izugarri horren ondorenak hasi dira igertzen jada Arrasaten. Enpresetan orain arte izandako lanpostu galerak areagotu egingo dira: aste honetan Roneoko lantegian 76 langile kanporatzeko plana aurkeztu du UCEMek (guztira 180 langile dira).

Transformados eta Cerrajeran ere soldata atzerapenak daude ekainetik, eta horrez gain, 118 pentsionista daude Arrasaten Ce-

rrajerako pentsio osagarriak jasotzen zizutenak eta apiriletik pezetarik ikusi ez dutenak. 755 milioi pezetako galerak izan zituen iaz Transformadosek: langile bakoitzeko, 7 milioiko galera, kopuru ulertezina langileentzat. Transformados Metalicos lehenbaiten likidatzea da orain UCEMen asmoa, enpresa saltzeko planak ahaztuta daudenez.

Akziodunen biltzarrean erantzukizunak eskatu zituzten batzuek, aurkeztutako hondamendizko balantzeagatik. UCEMek diru galera izugarri hauek izan dituen artean, administrazio kontseiluko 12 ordezkariak, soldatez gain, 16 milioi PTA kobratu dituzte dieta eta "lokomozio plusetan", 92ko memorian azaltzen denez.

Uherkape eta epaitegiak

Uherkapeko etxe eraikuntzaren auzi luzean, akzio legal gehiago eragin dezakeela ohartarazi du Uherkape elkarteak, etxeak erosi dituztenen elkarteak. Kasu honetan, lur-sail baten jabetzaren inguruan gorpuztu da arazoa. Azatza auzoko bizilagunek beren izeneko lur-saila dela diote, eta beren baimenik gabe bertan obrarik ezin dela egin. Udalak dioenez, erregistro ofizialeko erabaki baten zain besterik ez daude, lur-sail hori udalaren esku gera dadin. Orain, Uherkape elkartekoek Azatzakoei lur-sail hori doan eskaintzeko esijitzen diete bi hilabeteko epean, eta bestela kereila kriminala aurkeztuko dutela diote, udaleko hirigintza saileko presidentea izan zen Jose Lasaren aurka. Uherkapekoen esanetan, Lasaren agintepean eta modu irregularrean geratu baitzen lur-sail hori Azatzakoen esku, eta hori prebarkazioa da. Bitartean, mendi magalari eutsi behar dion hormaren eraikuntza hastreke dago oraindik.



ARRASATEKO UDALA

Udal Plenoak, 1993ko uztailaren 16an egindako ohizko bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

"Arrasateko Udalak, IKUSI entpresako goi kargua den Julio Iglesias Zamora Jaunaren bahiketaren aurrean, bere salaketa eta haserre haundiena adierazi nahi ditu, honelako ekintzek, aipatutako pertsonaren Giza Eskubideen aurkako eraso zuzena izateaz gain Euskal Gizartearen harreman demokratikoaren oinarrien kontrako jokaera bortitza adierazten dutelako. Udalak, Julio Iglesias Zamora Jaunaren bahitzaileei, berehalako askatasunean utz dezatela esijitzen die, eta Euskal Herri honetako hiritar bakoitzari, pertsonen askatasunaren aurkako eraso honen aurrean bere ezadostasuna eta salaketarik gogorrena adierazi dezatela eskatzen die."

Arrasaten, 1993ko uztailaren 22an
ALKATEA



Saihesbidea baino errepede azkarragoak behar direla uste dute alderdi gehienek.

Malzaga-Urbina: alderdien ikuspuntu kontrajarriak

Herri Batasunak "erabat gaitzetsi" du Maltzaga-Urbina autopista egitasmoa, baina Arrasateko gainerako alderdi politikoak proiektuaren alde azaldu dira, beren ñabardurak eginda. HBk bi arrazoi aipatzen ditu autopistaren aurka egoteko: oraingo Bilbo-Behobia autopistaren peajea luzatzen dela proiektu berria finantzatzeko, eta Deba bailarako hondamendi ekologikoa izango dela autopista. Ekologiaren aldetik, zuhur jokatu beharko dela diote PSE-EE, EAJ, EA eta EUEk. Alderdi guzti hauek Maltzaga-Urbina beharrezkoa dela diote, baina ikuspuntu lokaletik, autopista beharrean, autobidea izan beharko litzatekeela diote. "Ez litzateke ondo

egongo enpresa pribatuek bailarako jendearen premietatik negozioa egitea", komentatzen du, adibidez, Aitor Orobengoa EUEkoak.

Xabier Zubizarreta alkateak Deba bailarako errepede loturak hobetu behar direla dio, baina ez autopista eginez, baizik eta Arabarako irteera hobetuz Arlaban aldean, eta Bizkaia eta Gipuzkoa barrenarekin loturak indartuz, Deskarga eta Kanpazar azpiko tunelen bitartez. Paco Garcia zinegotzi sozialistaren iritziz, lan horiek baino eragingarriagoa izango da autopista, eta abiadura handiko trenaren ere ('Euskal Y' delakoa) beharrezkoa da.

Irakasle batek ez du Ferixalekua utzi nahi

Ferixalekuko okupatzaileen arazoa konpontzeko dagoela dirudien unean, bertan bizi den irakasleetako bat da etxea utzi nahi ez duena. Azkenean, okupek alokatutako etxeren bat topatzekotan daudela eta, Ferixalekua asteburu honetan utziko dutela agindu dute. Okupatzaileez gain, hiru familia bizi ziren ikastetxe gaineko etxeetan. Irakasle bat eta kontserjea trasladatu dira jadanik, baina beste irakasleak ez du etxea utzi nahi. Berak dioenez, etxea husteko agindua Hezkuntza sailak eman behar dio. Udalak Hezkuntzarekin kontsultatu du, eta antza alternatiba bat ematen badiote, eskubidea du Udalak etxe hori utzi egin behar duela esateko. Irakasleak errekurtsoa aurkeztu zuen joan den ostiralean udaletxean, eta hori atzera bota du udalak. Orain, kontentzioso administratiboa jarriko duela iragarri du. Indarrez baino, udalak beste bide batzuetatik espero du presio egitea.



- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA
IREKITA DAGO !

Hurbil zaitez gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



- LORATEGI
- BARATZA
- ZELAI
- BASO GARBIKETA

T R E S N E R I A K

Gipuzkoa Etorbidea, 9
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 78



Abuztuan goizez zabalik.
9etatik 2etara




EPERDE

Pruden Arroiabe eta Ami Murillo alde batetik eta Jose Ignazio Altube eta Lutxi Garcia, bestetik, pasa den ekainaren 19an ezkondu ziren. Lehenak Mejikon eta bigarrenak Balin egon dira ezkon bidaian. Zorionak!

Asteburu honetan ospatu diren Santamainako jaietan, Toki Argiko jubilatuek eskulan erakusketa izan dute zabalik. Urtean zehar 18 jubilatuk eginiko kuadro, grabatu, mantel eta beste lan batzuk egon dira ikusgai, obra artistikoak!

AEDk San Juanetako jaietan jarritako tonbolaran eginiko zozketan, 4.389 izan zen bizikletaren zenbaki saritua, eta irabazlea ere agertu da jadanik: Junkal Perez izan da irabazlea. Zorionak!



Bezere batek honako argazki hau bidali die Fagorrekoiei. Miren Josebe Agirrezabalen katuak labadoran sartzeko ohitura hartu du, eta sukaldeko atea

zabaltzen duen bakoitzean, labadorara sartzen da. "Nire ustez babestua sentitzen da labadora barruan" aipatzen du Miren Josebek, bidalitako gutunean.



Kanboko Xalbador ikastegian AEDk antolatuta burutzen ari diren auzolandegien bigarren txanda martxan dago jadanik. Pasa den igandetik bertan dira eta


lanekin jarraitzeko asmotan, gainera. Lehen txandakoak ere badirudi gustora ibili direla eta gaur, ostirala bertara joatekoak dira, asteburu pasatzera.

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

Maria Jesus Manterola, Maria Jesus Izura, Candi Puerto eta Mertxe Sainz laukotea **Santiago** aldean egon da. Pasa den ekainaren 19an **Santo Domingo de la Calzadatik** irten zuten oinez eta 19 egunetan, egunean 30-35 kilometro eginez, uztailaren 8an heldu ziren **Santiago**gora. Oraindik ere sasoi ezin hobea dute, ez dago dudarik!



Santamainako jaietan burutu den futbito txapelketan, **beraz, lehenak** irabazle. Ekipoan: Aitor, Dion, **Fran**, **Bixente**, Angel, Juarez, Iñaki 1, Mikel, 4-Santamaina 2 izan zen azken partiduen emaitza, **Iñaki 2, Jaime, Jon** eta Agus.

IZEN PROPIOAK

● Ibai Arte elkarteak antolatutako lora lehiaketan honako hauek izan dira sarituak: Maala kaleko 7. zenbakiko balkoiak, **Patri-cio Balanzategi**renak lehen saria jaso zuen; Iturriotz kaleko 19. zenbakia, **Garbiñe Etxagibelenak** bigarrena jaso zuen; Erdiko kaleko 46 zenbakikoak, **Maria Lasagabaster**renak hirugarrena eta ondoren zazpi accesit banatu ziren: **Josefina Uriarte, Matilde Mellodo, Juanita Ugarte, Elizabeth Saporta, Julita Aguirreureta** eta **Renè Watihouse**.

● **Beronika Garai**, 30 urteko arrasatearra da uztailaren hasieratik Arrasateko HBko liberatua. **Junkal Perez**en postua beteko du.

Abuztuaren 7tik 25era oportretan gaude!



EDERTU ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostirail
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99


ABUZTUAREN 3an UDALAKO JAIK!!!

BiZKAi ASKALDEGiA

Udala auzoa. Tfnoa: 79 22 15

Abuztu osoan zabalik!!!





Ondo jaratea eta gainera eroso joatea gustatzen bazarizu...


Elisabeth

*Zugandik hurbil eta harrituako zaituen prezioekin
San Andresen, autobus geltoki ondoan.*

Araba Etorbidea, 18 ARRASATE Tfnoa: 77 14 86

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

**Astore, Reebok, Nike, Adidas, Mito,
Karhu, Avia, Saucony, Quicksilver,
Libero, Linea 7, Asics, Salewa, Boreal,
Bestard, Ellesse, Lutha, O'Neill...**



**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño, 8
Tfnoak: 79 46 12 / 77 12 47
ARRASATE



● *Maria del Mar Lopez*

Roneoko hezurak aztertzen

Maria del Mar Lopez donostiarra arkeologoa da, eta Arkeolan elkartearen egiten du lan. Elkarte honek, Gipuzkoan egiten diren obra eta eraikuntza askotan azaltzen diren aztarnak aztertzen ditu, porlanak irentsi baino lehenago. Arrasaten ere izan ziren, Roneoko obretan agertutako duela berrehun urteko hilerriko hondakinak ikertzen.

— Nola etorri zineten Arkeolanekook hona?


— Diputazioko Kultura sailetik egin ziguten dei. Arkeologo bat dago han, Gipuzkoako ondare arkeologikoaren arduraz, eta hark komentatu zigunez, etorri egin ginen Arrasatera. Tuberia batzuk sartu behar zirela eta, zuloa zaintzen egon gara. Lehenbizikoak astearte batean azaldu ziren, Pako Etxeberria gure arkeologoa etorri zen eta altxatu egin zituzten hezurak. Aurrekoak non zeuden ikusita, kalkuluak eginez, beste inguru bat zulatu behar zutela genekien, eta kontu handiz arakatu ondoren.

— Ze aurkitu duzu?

— Bi ehorzketa aurkitu ditut, bata 30 zentrimetoko sakoneran, bestea 20koan. Azken hau okerrago zegoen, ortuko lanean, aitzurketan, buruhezurra eta oinak kenduko zizkioten edo. Bi eskeletoek zeuzkaten errosario moduko kate batzuk. Biak ondo ehortzita daude, ekialdetik mendebaldera orientatuta, eguzkiak ekialdetik irtezen duelako. Oraindik ikerketak egiteko zain daude, ea hezurak nola dauden. Aurkitu ditugun zeramika zati batzuk ere aztertuko ditugu, baina badirudi XVIII. edo XIX. mendeko ehorzketa dela.

— Ze balio historiko eta arkeologiko dute aztarnak?

— Balioa beti daukate. Asko esan diezagukete. Hemen hilerria zegoela, ondo ehortzen zituztela. Askoren zuloa edo hezurtegia izan balitz, beste era batean azalduko lirakeke. Gainera, errosario moduko batzuekin azaltzen dira, apropos hala ehortzi zituztelako da hori. Nolanahi ere, gero jarraipen dokumentala egingo dugu, eta dokumentuetan azalduko da seguruenik hemen kanposantutako bat zegoela.



— Zeresan diezagukete hezur hauek duela 200 urteko arrasatearren bizimoduaz?

— Hezurak aztertzen dituzten espezialistek esan beharoko digute hori. Baina esan diezagukete, bai, ea zer nolako gaisotasunak zeuzkaten, elikaduraz ere zerbait esango digute, hildakoak gizonezkoak ala emakumezkoak diren...

— Kanposantu zahar baten bakea haustek ez dizu atzera egiten?

— Tira, hildakoak garbi samar azaltzen direnez, ez dizu horrenbesteko inpresiorik egiten. Lehenbizikoak beti egiten du inpresioa, baina gero ez. Baina, beti errespeto handiarekin eskabaten dugu.

— Beste zein lan egin dituzue Arkeolanekook?

— Azken lan ikusgarria Irunen izan da. Kale batean kolektore bat sartu behar zuten eta dei egin ziguten, begiratzeko lehenago ea ezer zegoen. Eta halaxe izan zen, zeramika erromatar asko azaltzen zela ikusi genuen, objeto guztiak atera genituen eta gehiago eskabatu genuen. Orduan kai erromatarreko egurrezko egiturak azaldu ziren, zeramika ugari, eta objetoak, orratzak, txanponen bat... Espero ez genuen material piloa aurkitu genuen. Iaz Arrasaten ere ibili ginen eskabaten, Santa Barbara mendian. Gaztelua eta harresiak zirela eta, inork ez zekien ea esistitzen ziren edo ez, eta guk azalera atera genituen haien aztarnak.

— Amaitu dira oraingoz Arrasateko lanak?

— Tuberia sartu eta gero, amaitu da hau. Badakit gero errepide aldera beste zuloren bat ireki behar dutela, baina ez orain, aurrerago, eta orduan ere etorriko gara begiradaxoa ematera. Baina ez dakit noiz izango den.

● **“Lehenbizikoak beti egiten du inpresioa, baina gero ez. Baina, beti errespeto handiarekin eskabaten dugu”**

Petra, Isidora, Simona eta Maria Santos Halabeharrez mondrauetar

Arantzazu Loidi

Kalean ikusten ohituta bagaude ere, ezezagunak dira. Euren herritik halabeharrek ekarri ditu Arrasatera, seme-alabaren baten etxera, edo erreportai honetako batzuk bezala, etxe batek bestera hilabeteka. Salamanca, Soria, Caceres, Andaluzia... baina orain Arrasate da euren herria. Egzokitara hezurak epeltzera bezain gustora alera dira gure orrialdeetara.

Sasoï baten, orain urte asko ez dela, kooperatibetara edo bestelako enpresetara lanera etortzeko langileek, etorkinek, euren herriaz hitz egiten digute askotan. Eta jatorri edo erro honiei bizirik eusteko taldeak sortu dira Arrasaten, Al Andalus eta Corazon de Encina honren lekuko. Belaunaldi horrek hangoa eta hemengoa dela aitortzen du, hurrengo belaunaldiak hemengoa dela. Baina familia horietako askotan aittajaun edo amandreak ere ekarri dituzte, eta eurekin jarri nahi izan dugun gaurko zita.




Sarritan kalean goazela ikusten ditugun modu eta leku berean daude bilduta gaur

ere, eta tertuliakide dira Petra, Isidora, Maria Santos eta Simona. Hitzunak direla antzematen bazaie ere, isilik eta lotsaz begiratzen diote euren

hitzak hartu nahi dituen tresnari. "Galdetu nahi duzuna, guk erantzuteko modukoa bada", eta irekiaraz doa komeztazioa, lagunarteko giroa.

ETXERIK ETXE

Petrak 93 urte ditu, Robledillokoa da, Avilakoa, eta bere 11 seme-alabak bisitazten pasatzen du urtea, hila-



Maria Santos, Petra, Isidora eta Simona, Salamanca, Avila eta Soriatik etorriak.

bete batzuk hemen eta beste batzuk han. "Orain Katalunian tokatzen zitzaidan, baina nik nahiago dut hemen, gustorako egoten naiz. Bihar bertan alde egin behar dut, eta ze pena ematen didan! ez dakit zergatik maite zaiztuztedan hainbeste!"

Herrian interes asko duela esaten du Petrak, lan asko eginda, baina ondo bizi izan direla: "segan egin, behiak zaindu... gurea horixe izanda, lana besterik ez. Orain herrian ez dago ezer, behiak eta pekotza besterik ez".

Maria Santosek 88 urte ditu, Soriako Pandelaguakoa da eta herrira oporretan bakarrik eramaten dute "nahitaez hemen egon beharra daukat, herrian neure etxean hobeto egongo nintzatekeen arren. Herrian alabaren bat banu, bertan egongo nintzateke beti, beste modutan". Hitz horietan tristura ageri da eta isilunea apurtzeko, "Honek ere besteok gabiltzan moduan ibili behar, etxe batetik bestera" esaten du albotik Isidorak. Isidorak 100 urte ditu, eta berau da mondrauetarrik zaharrena, urte erdi mondragoen eta beste erdi alabaren etxean Salamancan egiten duena.

Petrari ere tristura handia ematen dio maletatxoa presatatu beharrak, beste etxe batera joatea tokatzen zaiola entzuten duenean, "baina zer egingo diogu?".

Simonak hiru urte daromatza Mondrauen, eta Salamancakoa da, "nik hemen kale hau besterik ez dut ezagutzen, bestela kotxean erabiltzen naute eta. Ondo bizi izaten da hemen, zer esango dizut... jaten ematen diguten lekuan, ondo. Lagunok elkartu eta pasiatu egiten dugu, edozein eguraldi egiten duela ere. Herrira joatea ere gustatzen zait, baina hemen egon behar dudala jakinda, gustora egoten naiz". Zenbat urte dituen galdetu eta "gutxi" erantzuten du, 82 bakarrik. Gaur falta



Kaleko bankuak ordezkatzan du euren herriko etxe ataria.

diren lagunuen izenean, kexu bat ere atera nahi du elkarrizketan, "Kale honetan (Udalpe kalean) aterpean egoteko banku bakarra dugu, eta ez gara kabitzen".

ORAINGO BIZIMODUA

Umearoa eta gaztaroa lanean gogoratzen dituzte, "baina orain ondo gaude" esaten dute etsita "han eta hemen gauza bera egiten dugu, ofizio bera han eta hemen: jan, edan eta lo". Isidorarentzat hemengo egonaldiko gauzarik bereziena omenaldia izaten da, lora-sorta ematen diote urtero. Maria Santos jubilatuetara joaten da egunero, jokuan egiten ikustera, berak ez du egiten eta, "guk beste modu baten jokatzan genuen", baina gustora egoten da, lagun ditu "las vascas" deitzen dituenak.

Petrak ere oso atsegin ditu "bere bihotzeko" euskaldunak, "herrian dudan koinata batek ez dit sinisten hemen gustora egoten naizenik eta erretratu hau erakusten diodanean, esango diot, 'egia da ala ez da?'"

Euskal Herrian zehar ikusi dituen bazterrak kontatze-

ko gogoia du Petrak: "Itsasoa ikusi nuen hondartzara joan nintzenean eta belaunetarrino sartu ere egin nintzen eta ez zidan beldurrik eman. Eta barkuak..., bakailo usaina zegoen han". Amabirjina ikustera eraman zutenekoa, hemengo lurraren aberatsa... aipatzen ditu;

DESPEDIDAKOA

Ez dute inorako presarik, eta konfidantza hartu eta gero, gustora ari dira barriketan; antzinako kontuak gogoratzen dituzte erretratuan irteteko soinekoak lixatu eta ileak orrazten dituzten bitartean. Gaztetan ere ez zitzaizkiola erretratoak gustatzen esaten dit Maria Santosek; Isidora ohituta dago, "telebistan ere atera ninduten". Simonak lotsarik gabe begiratzen dio kamarari, eta Petrak, sonbreroa alhora okertuz, bere herriko bertso moduko batzuk kantatzen ditu: "Por tu puerta voy pasando / ya te voy llamando reina / y te traigo una corona / de claveles y azucenas".

Eskerrikasko artean agurtu, eta gustora hartzen da gonbidapena: "nahi duzunean etorri, gu hemen egongo gara".

E
txerik etxe ibili
beharra tristea
da; baina zer egingo
diogu?



Joan den denboraldiko partidu bateko irudia.

Lau partidu Mondraren denboraldia prestatzeko

Aurrendenboraldia diseinatuta dauka Mondragon Futbol Taldeak, aste honetan entrenamenduetaraitzuli eta gero, sekula baino opor laburragoen ostean. Asteartean bildu ziren lehenbizikoz jokalaria. Batzuk oportetarik etorri berri, etxetik pasatzeko astirik ere ez. Atxabalpen, baina ostegunez izan dute lehen entrenamendua. Leiba, Madina eta Ramon jokalaria berriak hasi dira jada lanean, baina oraindik erabat biribildu barik dago plantilla: antza denez, jokalaria batzuk pentsatzen ari dira oraindik, ea segitu ala ez.

Datorren astean lau egunez entrenatuko dute, eta gero, abuztuaren 9a arteko

beste atseden tarte bat hartuko dute. Ondo merezizetakoa, kontuan izanda aurtengo play-off-arekin inoiz baino beranduago amaitu dela denboraldia. 9tik aurrera entrenamenduak jarraian egingo dira lehen partidura arte: abuztuaren 21ean, Zarautzen kontra, han. 24an, Elorriora bisita.

Ondoren, Arrasateko Hiria txapelketa izango da Atxabalpen. Lehen partidua, 28an, Mondrak eta Aretxabaleako UDak jokatu dute. 29an, Eskoriatza-Aloña Mendi jokatu da, eta irabazleen arteko finala irailaren 1ean izango da. Mondra finalera iristen ez bada, beste partiduren bat antolatzen saiatuko da direktiba,

aurrendenboraldiko pres-takuntza lau partidurekin osatzeko.

Ondoren, irailaren 5ean, 3. mailako denboraldia hasiko da. Etxean jokatu da Mondrak lehen partidu hau, eta Elgoibarren aurka izango da, 2.B mailatik jaitsi berria den talde baten aurka. Hurbiltasunagatik eta taldearen mailagatik, benetan partidu garrantzitsua da, eta klubak nahiago zuen halako partidua aurrerago gertatzea, takila aldetik askoz hobe izango litzakeelako denboraldia gori-gori dagoenean jokatzeko. Kanpoan jokatu beharreko lehen partidua, irailaren 12an, Balmasedan izango da, *regionaletik* igo duen talde horren kontra.

LABURRAK

Basket denboraldiari agur

Arrasate Saskibaloitza taldearen zuzendaritza berria larunbatean aurkeztuko da, urterro egiten duten denboraldi amaierako afarian. Felix Aiala lehendakari berriak Jose Mari Balzategirengandik hartuko du lekukoa, eta gogoz ekingo dio zuzendaritza berriak lanari, kaleratu duten agiri batean diotenez, taldeak ez baitauka disolbatzeko inolako asmorik. Afari hori baino lehenago, nesken taldeetako eta mutilen taldeetako entrenatzaileek elkarren aurkako partidu bat jokatu dute Setan Musakolan.

Futbito maratonia

Uribarri auzoko joan den asteburuko futbito maratonia Aiton-Semeak taldea nagusitu zen, Betrayar taldeari 6-2 irabazi ondoren. 3. eta 4. posturako partiduan 3-2 irabazi zioten Aizpun Bila-koek Sokoakoak taldekoei. Guztira 32 taldek hartu zuten parte 24 orduko futbito maratonia.

Kirola airez eta uretan

AUKEAk udarako antolatutako kirol jardueretan hurrengo astean izango da zer eginik oraindik: 27-28an eta 31-1ean, parapente ikastaroa Oñatin; 28 eta 31n, kainoi jaitsiera Nafarroan, eta *rafting-a* Huescan, eta hilaren 31n eta abuztuaren 1ean, piraguismoa Huescan. Informazioa: Gazte Zerbitzuan.



Parz Manceras
Bitxitegia

Iturriotz, 7 bis. Tfnoa: 77 1271 ARRASATE

UDAKO POSTAL LEHIAKETA

Guk ere jakin nahi dugu zure oporren berri!

Zauden lekuan zaudela, idatzi postal bat **ARRASATE PRESS**era eta **BI LAGUNENTZAKO AFARI EDER BAT** irabaz dezakezu.

Postalik saltsero, sinpatiko, humoretsu eta atseginena saritu nahi dugu.

Bidali lehenbait lehen, bakarka, taldeka edo familia guztiaren izenean, eta... zorte on!


ARRASATE PRESS

Azoka kalea, 1

20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Bidali lehenbait lehen zuen postalak,
IRAILAREN 7a baino lehen iritsi daitezten!!

Ez ahaztu zuen etxeko helbidea eta telefono zenbakia jartzea!!



Oporretan telebistarik bai?


Telebista eskura dugun tresna da. Tresna honek eskain ditzakeen aukerak asko dira: entrenigarri moduan, informatiboa, dibulgatiboa...

Baina telebistaren errealtatea beste bat izan ohi da: telebista guk erabili beharrean, telebistak erabiltzen gaitu gu.

Telebista ikustea, ona ala txarra da? Gurasoen artean eztabaigai izaten da arazo hau: "Nire semea txera sartu bezain laster telebista aurrean jartzen da...". "Nire alabari berdin zaio zer dagoen; orduak pasatzen ditu telebistaren aurrean..."

Oporretakoa lasai egoteko garaia da, gustoko gauzak egiteko erabiltzen dugun denbora. Oporretako tokia, nahi dugun liburua, zein kirol egin nahi dugun hautatzerakoan gustokoena aukeratzen dugu, ez eskura datorkigun lehena. **Jokabide** bera ote dugu telebistaren aurrean?

Zer nolako jarrera izaten dute umek telebista aurrean



opor garaian?

Oporretan ume gehienek askoz denbora gehiago pasatzen dute kalean, eguraldiak, normalea, lagundu egiten baitu; lagunekin jolasteko planak egunero egiten dituzte, bizikletazko irteerak antolatzen dituzte, piszinara; gau-

tan ere bestela egingo ez litzuketenak egiteko ahalaeginetan ibiltzen dira. Normalean opor denboran ume gehienek ez dute sentitzen telebistaren beharrik eta ikusten dutena benetan interesatzen zaiena izaten da: marrazki bizidunak edota telesail zehat-

zen bat. **Aukeratu** egiten dute nahi dutena.

Nagusioi berdin gertatzen zaigu: opor denboran askotan telebistarik gabe egoten gara eta gogoratu ere ez gara egiten. Oporraldian, aspaldi gordeta genituen liburuak irakurtzen ditugu, adiskideekin denbora gehiago pasatzen dugu, kirola egiten dugu...

Orduan, oporretan telebistarik bai ala ez? Ez bata eta ez bestea. Aukeren arteko beste bat baino ez da eta... zergatik ez?

Oporretan normalean aukera bat izan ohi dena urtean zeharrekoa bihurtzea lortu beharko genuke, bai guretzat, bai gure seme-alabentzat.

ESTHER MERINO,
SAN VIATOR IKASTOLAKO
ZUZENDARIA



Autokarabanak alokatzen dira!

T METS
T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkoi piezak eta osagarriak.

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Mondeo



IV MUGARRI

MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ

Tfnoa:(945) 23 04 48

Rafael Martinez de Arano

Maixu Aranoren lekukoa

Rafael Martinez de Arano, injeniaritzako doktorea, EHU-UPVko irakaslea gaur egun, eta atzerriko hainbat proiektutan parte hartua, gure herrian maixu handi izan den baten, Felix Aranoren, iloba da. Bere ama, Angela Arano, Felixen alaba eta hura bezala Biteri Eskoletako maistra, duela gutxi hil da Iturbide egoitzan. Rafak, orain, donazio bat egin dio Arrasateko Udalari, Arrasateko herriari.

— Zer da zure familiak Udalari egin dion eskaintza?

— 1925eko ekainean Arrasateko herriak nire aita-jaunari, Felix Arano maixuari oparitutako Albuma da, irakaskuntzan eta herriaren alde egin zuena eskertu nahirik bi mila sinadura eta dirua batuta egin ziotena. Nire amak emozio eta maitasun handiz gorde izan du, eta liburu horren hartzaile nagusia Arrasateko herria, bi mila sinatzaile haien ondorengoak direla uste dugunez, Alkateari donazioa egitea pentsatu genuen, eta Udalak onartu egin du.

— Zure aitona eta amaren zure figura laburtuko zenuke hitz gutxitan?

— Aitona ez nuen ezagutu, baina bokazio handiko maixu bezala gogoratzen dute denek, dedikazio handikoa, zintzoa. Alfontso XII.aren domina ere eman zioten ikasleekin burutu zuen lana zela eta. Kalkuluko teknikak garatu zituen; ikasleengana irekita eta hurbil egoten zekiena ei zen, eta Biteri Fundazioan egin zuen lanaz gain, bere ikasle ohiekin enpresa ekimenak ere bultzatu zituen, 1929an hil arte.

Ama ere eskola bereko



maistra zen, bere amaren lekua hartu zuen eta gerra hasi arte egon zen bertan. Ikasleek oso oroitzapen ona gordetzen dute berataz. Ondo egindako lanerako zuen gaitasun bereziarekin batera, ikasleen lanez antolatzen zituen erakusketak aipatuko nituzke.

— Biteri Fundazioaren izpiritua, beharrezko eta posible ikusten duzu gaur egun?

— Biteri Fundazioaren Estatutoak ez ditut ezagutzen. Gaur egun beste eskola eta ikastola batzuk daude, hobeak? txarragoak? konpa-

raketa egiterik badago? Gaur ere badaude irakaskuntza eta formazioaren garrantziaz eta erantzukizunaz jabetzen diren balore eta bokaziozko dedikazioak. Denak dela, nik beharrezko eta premiazko josten dut maila guztietan formazioa nagusitu dadila instrukzioaren aurrean, solidaritategia indibidualtasuaren gainetik, izatea eta osotasunean bizi izatea gero eta gehiago edukitzearen aurrean etb. Sortuko al dira berriz ere Biteri Fundazioak bere garaian izan zuen adinako eragina izango duten ekimen berriak. Eta bide

.....

“Etorkizuna, gure eskoletan dago, gure ikastoletan, gure familietako giro eta berotasunean, gure maixuen lanean, komunikabide eta hedabideetan...”

batez esanda, haren diru kontu oparoez ez da ezer jakin 1936az geroztik!

— Norbaitek esan zuen Kooperatibismoaren lehen hazi Arizmendiarrietak aurretik Aranok jarri ote zuen...

— Ez nator bat. Garai eta egoera ezberdinetan Arrasaten erretako bi hazi ezberdin dira, azpimarratzekoa da bakoitzak bere egoera berezia bizi zuela. Konparaketa hori egiterik ez zitzaidan bururatu, izan ere, ez zuten elkar ezagutu, Kooperatiben fundatzaileak ez ziren Biteri Fundazioan ibili.

Izatekotan ere, eta testuinguru honetan, nire aitona lan “jakintzak aske egingo zaitu” esaldiak gidatzen bazuen, On Jose Mariarena beste lelo sakonago batek gidatzen zuen: “Jakintza sozializatzea boterea demokratizatzeke”. Eta ideia horrek jarraituko al du eta indartuko al da!

— Etorkizuna nola ikusten duzu alde horretatik?

— On Jose Maria eta gure aitona oso ereile onak izan ziren, eta eurek ereindako haziak fruitu onak eman ditu. Baina zertan geratuko da gaur egun Felix Aranoren lana? Nola doa orain eta zertan geratuko da hirurogei urte barru Arizmendiarrietak zentzuz eta izpirituz bete zuen lana, konpetitibitate ekonomiko hutsezko irizpideak “gizaki kooperatiboa”ren, “militante kooperatibisten” irizpideen gainetik nagusitzen badira? Etorkizuna, gure eskoletan dago, gure ikastoletan, gure familietako giro eta berotasunean, gure maixuen lanean, komunikabide eta hedabideetan...



rrasateko sukaldari handi baten lanaren berri dakargu erretratu honen bidez. Obduli Ansoategi sukaldari eta emakume ezaguna eta maitatu da herrian, eta berarekin argazki honetan ageri diren neska gazteek ere oroitzapen ona dute berataz.

Udalperen inauguraziotik bertako sukaldari ibilia da Obduli, eta horretaz gain baserri eta etxe askotan bodako bazkariak ipintzen ere bai. Sasoi horretan neska gazteei sukaldaritzako ikastaroak ematen zizkien, eta pare bat urte egin zituen lan horretan. Hilabeteko kurtsoak izaten diren, arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean,

Obduliren beraren etxean. Orduan, Gatzagatik hasi eta Bergarainoko neskek etortzen ziren trenean. Denetik erakusten zuen, sasoi hartan emakumearentzat ezkondu aurretik kozinan ondo jakitea inportantea izaten zen eta. Okela, arraina, berdurak, postre kontua, arrautzak... denetik ikasten zen. Arrautzei buruz, orain ere esaten du Obsulik, arrautzak preparatzeko, urteak egunak adina modu dagoela. Esperientzia handiko sukaldaria izaki, gauza praktikoak ikasi zituzten kurtsilootan.

Egunero, prestatukoa zo-

zketatu eta norbaitek etxera eramaten zuen eta kurtsiloaren azkenengo egunean, prestatukoarekin zelebrazioa egiten zen, txapain eta guzti eta horrela ateratako argazkia da. Zutik ezkerretik hasita, **Sabina Mazmela**, ezezaguna, **Obduli Ansoategi**, **Nieves Juldain**, **Martina Mondragon**, **Espe Sagasta**, **Maritxu Letona** eta **Miren Igartua**. Euren atzean **Anttoni Gomez** eta **Kristina Gonzalez**.

Eserita, **Maria Luisa Elorza**, **Jesusa Txintxurreta**, **Espe Lizarralde**, **Pilar Ortubai**, **Miren Ortubai** eta **Itziar Mujika**.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Ondo pasatu oporrak,
gu ere oporrtan gaude
abuztuan

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Eskoriatzan etxebizitza amueblatua alokatzen dut. Tfnoa: 79 87 26.
- Garaje plaza bat alokatzen dut. Tfnoa: 79 79 12.
- Irailean etxebizitza alokatzen da Ezkarain. Tfnoa: 79 31 56.
- Neskak behar dira Bilbon pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 416 01 00. Jaione B.
- Pisua topatzeko pertsona behar da edo etxebizitza baten gela libre bat. Dei egin goizeko 9etatik 2etara 79 16 57 tfnora. Natxo.

Lana

- Uztailean OHOk klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- Ekonometriako klase partikularrak ematen dira uztailean. Tfnoa: 79 40 87. Miren.
- Marrazketa tekniko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 65 84. Leire.
- Neska esperientziadunak umeak zainduko litzuzke. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- Lizenziatu esperientziadunak ingeleseko klase partikularrak emango litzuzke uztailean. Tfnoa: 79 26 21. Ane.
- Uztailean ingelesezko klase partikularrak ematen dira. Dei egin goizetan 77 05 77 tfnora.

- Ingeleseko filologoak logikako klaseak hartuko litzuzke uztailean. Tfnoa: 79 35 56. (Maite).
- O.H.O., Batxiler eta ingelesezko klase partikularrak ematen dira uztailean. Tfnoa: 79 04 76.
- Uztailaren 15etik aurrera eta irailaren hasiera arte, OHO eta UBiko klase partikularrak emango nituzke. Deitu 79 46 75 eta 79 23 36.
- Matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak ematen dira uztailean-abuztuan. Tfnoa: 79 25 37.
- Sukaldaria behar da Santanderreko Nojan taberna baten lan egiteko. Udako denboraldirako. Tfnoa: (942) 63 01 31.
- Emakume edo neska euskalduna eta esperientziaduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 89 96. Maria Eugenia.
- Injeneritzako lehen mailako kalkulo eta algebreko klase partikularrak hartuko nituzke abuztuan. Tfnoa: 79 51 36. Mikel.

- Paseoko bi bizikleta salgai. Egoera onean eta merke. Deitu 79 71 59 tfnora. Iñaki.
- Kotxea salgai: urrian erositako Renault Clio bat. Garantian dago. Tfnoa: 79 13 88 (Lorea).
- Mar-Puma markako karro-denda salgai. Bi urte ditu (60 egun erabilia). 2 logela, abanzea, arkoia eta serbo-frenoa. Tfnoa: 79 76 07.
- Opel Kadett 1.6. S salgai. Matrikula SS-Y. Tfnoa: 76 00 39.
- Gasezko sukaldea erosiko nuke, plaka handiak dauzkana, galdara handiak jartzeko modukoa. Tfnoa: 79 40 53. Maite.
- Umeen mountain-bike bizikleta salgai. GAC 4x4 markakoa. Estreinatuta barik dago. Amortiguadoreak ditu eta kanbio gabekoa da. Prezioa: 8.000 PTA. Tfnoa: 79 27 88.
- Abereak gustoko badituzu, kuixaren bat interresa dakizuke. Bedarra eta ogia jaten dute eta ura ere behar dute. 250 PTA bakoitza. Tfnoa: 76 32 18 (astelehen, ostegun eta larunbatetan gaueko 7etatik 9etara). Itziar.

Salerosketak

- Hiru berogailu, hiru negua pasatzeko epelean nik saltzen ditut modu onean!
- Kerosenozko berogailu bat "Corona FH 5540 S Big-Inventer" markakoa.
- Butanozko bat "Delonghi" markakoa.
- Eta elektriko bat "Delonghi Caldovento" markakoa. Behar izanez gero, jo 78 05 72 tfnora. eta egingo xuagu/xonagu tratua.

Denetarik

- Martitzen 13an goizeko 10etan Zentro Asistentzial eta Anbulategi tartean dagoen telefonoaren Kabinan Kartera bat utzi nuen ahaztuta. Norbaitek aurkitu badu, deitu 79 17 88 Tfnoa. Karmen.
- Datorres ikasturtean Bilbora egunero arratsaldez joateko interesatuek dei egin 77 08 32 tfnora.

Aste Gazte

Oporraldiak

- Abuztuaren 8tik 14ra, Bidarrian (Iparraldean): piraguismo, espeleologia, eskalada... 18-29 urte bitartekoentzat. 16.500 PTA.
- Abuztuaren 2tik 8ra Xakobeo kultur bidaia. 14-29 urte bitartekoentzat. 17.000 PTA (bidaia, otorduak eta txangoak barne)

Nazioarteko ikasle txartela

- Atzerrira zoazten ikas-

leoi txartel hau eskuratzea komeni zaizue, museo, ikuskizun, garraio eta abarretan deskontuak izateko. Donostia nahiz Bilboko TIVEN lor dezakezue.

Bekak

- Suizan ikasketa artistikoak burutzeko bekak. Arloak: musika, arte ederrak eta arte aplikatuak. Baldintzak: lizenziatuak edo karreraren azken ikasturteko 35 urtetik beherako ikasleak,

ingeleza maila egokia. Epea: irailak 15.

Lehiaketak

- Arrasaten abenduan burutuko den "Adibidez" mostra iragartzeko kartel lehiaketa. HIES Ekimenak antolatuta. Teknika eta formato libreak. Saria: Euskal Herriko zerutik bidaia bat globoan. Epea: irailak 26.
- "Gazteak Martxan" Arrasateko IV. argazki lehiaketa. 2. maila: a) Deba garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak b) 21-35 edozein. Zuribeltz nahiz koloretan. Epea: urriak 29.

"Pentsatzen jarrita, Setatsuak berak ere oso gaztea izan behar zuen garai hartan, bestela ez zen erantzun txar batengatik haserretu izango".

B. ATXAGA.

"BEHI EUSKALDUN BATEN MEMORIAK"



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Mila Perez

Eroski Bidaiak agentziakoa

- Autobusean, aurrean ala atzean? Aurrean.
- Diariorik idazten duzu? Ez, gaztetan bnakarrik.
- Inoiz irten duzu zinetik pelikula bukatu baino lehen? Ez, nahiz eta txarra izan, bukatu arte itxoin dut beti.
- Baduzu aitona edo amonarik? Bai, bi ditut.
- Zer ordutan jaikitzen zara? Goizeko 7.45etan.
- Bete zaizun ametsa? Bai, oporretan joatea.
- Noizbait bidali eta hartu duzu zerbait faxez? Bai, hemen egunero bidali eta jasotzen ditugu faxak.
- Zeintzuk dira gustoko ez dituzun txanponak? 200 PTako txanpon berriak.
- Badakizu josten? Beno, piska bat, justua, botoiak josten eta...
- Ezkontza batera joateko erroa berezia jazten duzu? Bai, aprobetxatu egiten dut zerbait berezia erosteko.
- Ona zara txisteak kontatzen? Ez, hobeto beste batek kontatzen baditu.
- Nora zoaz oporretan? Rosas-era.
- Nora gustatuko litzaizuke joatea? Kanadara.
- Non hartzen duzu eguzkia? Murun, Udalan, edo Zumaian, kosta aldean.



BERTSOAK

AITZ-GORRI

1
Gogoratzeaz ikusi nuna pasa dan asteburuan, ain zuzen ere bertsoarako gaia sortu det buruan; ango "ermita" konpondutzeko bear zutena eruan; "aitz-gorri" gallur-gallurreraino aixa elikopteruan.


2
Aurrerapenen gain ainbat aldiz arin mintzatuak gaude, alegia ezer on gutxi baño alduten gizonen alde? olako gauzak ikusi eta nik au egiten det galde: onezkero gu nola otegiñan aurrerapenikan gabe?

JOSE MANUEL ARRIOLA



ARRASATE BIDEO KLYBA

**Aukera
berri berria:
Arrasaten
lehenengo
"BIDEO-KUTXA"**



Edozein ordutan zure pelikula aukeratu dezakezu

Sebero Altube Plaza, 7 ARRASATE Tfnoa: 79 79 31

Mikel Arregi

Goikobalu abesbatza opor barik


Agenda estua dute Goikobalukoek hurrengo hilabetetan. Abuztuaren 9an Musika Hamabostaldiaren inaugurazioan hartuko dute parte Donostian. Irailaren 4ean Zumarragan dute zita. Eta urriaren Beethovenen obra herri desberdinetan abesteko asmoa dute. Konpromezu eta ohore handiak denak ere.

— Zer dela eta hartuko duzue parte inaugurazio horretan?

— Aurten Rachmaninoff-en heriotzaren 50 urte muga dela eta, "Las visperas de Rachmaninoff" obra abesteko proposamena egin ziguten. Oso obra zaila da baina urte muga dela eta, urte aproposena iruditu zitzaigun obra estreinatzeko. Lan handia behar da, lektura aldetik asko eskatzen du, ahots desberdinak ditu abestiak eta 15 ahots desberdin nahasten dira.

— Ez zoazte Goikobaluko denok; nola egin duzue aukeraketa?

— Abuztuan denez, aukeraketa naturala izan da. Hasiera batean abesbatza guztiarekin parte hartzea pentsatu genuen, baina kontutan izanik jende asko kanpora joango dela, geratzen garenok hartuko dugu parte. Hiru abesbatzak ere hartuko dute parte:



Donostiako orfeoia, San Inazio abesbatzak eta Goikobalutik joango garen 45-50 lagunok. Zuzendaria Donostiako orfeoiko zuzendaria izango da: Jose Antonio Sainz de Alfaro.

— Nola egin dituzue entsaiuak?

— Abesbatz bakoitzak bere aldetik egiten ditugu entsaiuak, bakoitzaren kabuz. Astean bi entsaiu orokorrak eta kordetako beste bi entsaiu egiten ditugu. Pasa den igandean Donostian izan ginen elkarrekin entsaiua egiteko. Egia esan, nahiko ondo goaz, igandean esate baterako nahiko ondo irten zen eta kalitateko produktua eskainiko dugula uste dut. Asteburuan, Arantzazura joango gara eta entsaiuetan pasatuko ditugu egunak.

— Musika Hamabostaldian parte hartzeak zer esan nahi du Goikobalurentzat?

— Kultura Musikalarekin batera Euskadiko musika mailan zitirik garrantzitsuenetarikoa da Musika Hamabostaldia eta guretzat gauza inportantea eta esanguratsua da. Gainera, Donostian egingo da inaugurazioa eta zuzenean entzun ahal izango da irriaren bidez. Gainera, abestea gustatzen zaigunok gero eta gehiago eskatzen dugu eta orain arte izan dugun muga gainditzea lortu dugu emanaldi honen bidez.

— Aurrera begira zeintzuk dira zuen proiektuak?

— Uda ostean berriz obra berri abesteko asmoa dugu. Urriaren Beethovenen "Bederatzigarrena" egiteko asmoa dugu. Kanpoko abeslariak ere hartuko dute parte: Donostiako orfeoitik, Eskoriatzako Gorosarritik eta abar. Arrasateko parrokiako abeslarien taldeek ere hartuko dute parte. Guztira Goikobalukoak ez diren 20 lagunek edo hartuko dute parte. Obra hori toki desberdinetan eskainiko dugu: Getxon urriaren 19an, Santanderren 30ean, Arrasaten 31n eta arazoaren 2an Logroñon. Lan handia dugu, beraz.

LABURRAK

"Gazteak martxan" argazki lehiaketa

Herriko ASA herriko argazkilarien taldeak eta Udaleko Gazte Zerbitzuak, "Gazteak martxan" izeneko argazki lehiaketa antolatu dute. Bi maila bereiztuko dira: Deba Garaiko 14-20 urte bitartekoak eta 21-35 urte bitarteko edozein. Lanak urria baino lehen aurkeztu beharko dira. Sariak hauek dira: lehen mailan, irabazleak 20.000 PTA jasoko ditu eta bigarrenak 10.000 PTA. Bigarren mailan lehenak 50.000 PTA, bigarrenak 35.000 PTA, hirugarrenak 25.000 PTA eta laugarrenak 20.000 PTA.

Euskararen hitzarmenerako anagrama lehiaketa

Euskararen erabilpena sustatzeko hitzarmenaren enagrama sortzeko lehiaketa antolatu da. Arrasaten bizi edo erroldaturik dagoen edozeinek har dezake parte. Partehartzailerik nahi beste anagrama aurkeztu ahal izango dute eta bi aldagai aurkeztu beharko dira: bata kolore batean eta bestea bi koloretan. Irailaren 24a baino lehen entregatu beharko dira anagramak Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzuan. Irabazleak 50.000 PTA irabaziko ditu.



JOSU

TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



AEDren sariketarako 93rako deialdia

ASTRONOMIA

KANPOTIK BEGIRATUZ (eta II)

Gure eguzki sistema-
ren taminu erlatiboa ari
ginen konparatzen
aurreko alean.

Adibidearekin
jarraituz, hurrengo
planeta Martitz da, bere
tamainua kanikatxo
batena izango litzateke
eta bere orbitaren
diametroa 150 metrokoa
izanik (futbol zelaiaren
kanpotik).

Jupiter laranja bat
bezala agertuko litzai-
guke, bere orbitaren
diametroa 500 metrokoa
izanik.

Hurrengoa Saturno,
beste laranja bat eta km.
bateko orbita ibiliz.

Urano, mandarina
bat eta 2 kilometrotako
orbitan.

Neptuno, beste
mandarina bat 3 kilome-
trotako orbitan.


Azkenean, Plutoi,
kanika bat bezain txikia,
orbita oso eliptiko bat
korrituz, batzuetan
Neptuno baino gertuago,
(2.5 kilometrotara) beste
batzuetan urrunago (4
kilometrotara).

ERNEST BORN

Urtero antolatzen dituen le-
hiaketen deialdia egin berri
du Arrasate Euskaldun Deza-
gunek, eta aldi berean iazko
lehiaketako lan sarituak bil-
tzen dituen liburua kaleratu
du. Arrasate 92 lehiaketa-li-
buru hau mila PTAtan dago
salgai Hire liburudendan eta
AEDko egoitzan.

Liburuan agertzen diren
lanak honako egileenak dira,
sari eta akzesiten artean, na-
gusi, gazte eta gaztetxoan
mailetan: Juan Luis Azkarate
eta Aner Arregi (argazkia);
Jesus Mari Etxeberría, Joxe
Otañu eta Jon Ruiz de Zarate
(diapositibak), Mario Egues
eta Nerea Altuna (komikia);
Jon Iñaki Izarzelaiá, Amaia
Agiriano, Ainhoa Agirreazal-
degi, Saioa Arando, Maider
Osa, Zuhaitz Herrero, Ekhine
Landa eta Jokin Egurbide
(bertso paperak); Asier Etxan-
iz, Xabier Altube, Patrizia
Sagasta, Lorea Arantzeta, Lur
Zubiaga eta Olaia Agirreza-
balaga (poesia), eta Juan Luis
Lopez, Asier Etxaniz, Mai-
der Leturia, David Urrutia,
Nagore Martinez, Nerea Go-
rosabel, Beñat Otxoa, Leire
Lardizabal eta Saioa Esnal
(ipuina).

Aurtengo lehiaketari da-
gokionez, zuribeltz nahiz ko-
loretan, bost argazkiko sorta
aurkeztu behar da eta gaia
"Arrasate zaharra" izango da



laz saritutako diapositiba bat.

J. M. ETXEBARRIA

(pertsonek, gauza edo ohitu-
rak); saria 40.000 PTAKoa
izango da (akzesitak, 20.000).
Diapositibetan, gaia inguruko
animaliak izango dira, 3tik 5
irudira aurkeztu behar dira,
filmina onenak 10.000 PTA
izango ditu, eta sorta onenak
15.000. Komikian, aisialdia
Arrasate da gaia, 4tik 6 orrira
(A4) aurkeztu behar dira eta
saria 45.000 PTAKoa da (ak-
zesitak, 20.000). Bideo alo-
rrean, 5 minututik 15erainoko
zinta aurkeztu behar da, gai
librean, berdin fikzio edo do-

kumentala, eta saria 80.000
PTA dira (akzesitak, 30.000).

Literatur arloan, poesia,
ipuina eta bertso-paperak
sarituko dira. Ipuina lau fo-
liotik 7ra arteko luzeran, poe-
sian 100 bertsoetik 200era, eta
bertso-paperetan 10-14 ber-
tso idatzi behar dira. Kasu
hauetan, sari nagusia 55.000
PTA dira (akzesitak, 20.000).
Lanak azaroaren 5a baino le-
henago bidali behar dira AE-
Dra (Pablo Uranga, 5), eta
abenduan jakinaraziko dira
irabazleak.

Azkoazan...

Astelehenetan ezik,
abuztu osoan
zabalik


DUKIENA jatetxea

Tfnoa: (945) 44 50 86 ARAMAIO

• ESAERA ZAHARRA •

“Herri txikia infernu handia”

• JEROGLIFIKOA •



Zeinek kendu dio erregina?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5		6
7						8
9				10		
11			12			13
14						15
16			17	18		
19						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Emakume izena. 7. +9 = bekatirik gabe dagoen plaza. 8. GAURko kontsonanteak. 9. Ikus 7. 10. Zenbakien zerrendan lehena. 11. Aurkitu. 13. Esnatu aurretik. 14. (Ald.) Antzarraren txita. 15. ATZoko kontsonanteak. 16. Ate, hitz elkartuetan. 17. Baimendu. 19. Arkakusoak.

Bertikalak 1. Aberriak. 2. Begitandu. 3. Kirolariek praktikatzen dituzte. 4. (Ald.) Mendia (898) Bergara / Urretxu. 5. Nota musikala. 6. Oinutsik. 8. Praka. 12. Artilleria pieza. 18. Dei-hitza, txo itsasaldean.

• HOROSKOPOA •

Aries Oporretako azken txanpa falta zaizu. Animo!

Taurus Hainbeste telebista ikusten baduzu, okulista bisitatu beharko duzu.

Gemini Oporretan ezer egiten ez baduzu, orain arte ikasitakoa ere ahaztuko zaizu.

Cancer Azken jaietako ajea pasatzeko ez zaitetz beti ohean sartuta egon.

Leo Denok dakigu burusoila zarela. Haize piska bat etortzen denean pelukina botako dizu.

Virgo Irakurri noizean behin egunkaria egunean jarri zaitezen.

Libra Sukaldari desastrea zara. Zure bazkaria jatea baino hobe da goseak egotea.

Scorpio Gezurrak besterik ez dituzu esaten. Inork ez dizu ezer sinistuko.

Sagitaris Jarraitu dirua aurreratzten. Laster dena behar izango duzu.

Capricorn Sendagile gisa izugarri balio dizula gauza jakina da guztiontzat.

Aquarius Galtzen ere ikasi beharra dago. Animo!


Piscis Eginahalak egin arren, sekula ez duzu nahi duzun guztia lortuko.

‘CARFRA’ SUKALDE ALTZARIAK 5 URTETAKO GARANTIAZ

ELEKTROGAILUTAN MARKA GUZTIAK

ARMAIRU ENPOTRATUAK ISPILU-ATE KORRIGARRIEKIN

BARNE ETA KANPOKO ATEAK



Iris

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA
Legarre pabiloia z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

DeLonghi

marka italiarraren banatzaile ofiziala

Ondo pasatu oporrak!!
Iraileko lehen asteen berriz prest!!

· MIREN ARRIETAREN GOMENDIOA ·



Udan eguzki-gose izaten garenez, ondo etorriko dira Miren Arrietaren eguzkia hartzeko ematen dizkigun gomendio edo aholkuak. UV izeneko eguzki izpiak kaltegarriak dira, azala lehortu, ximurtu eta luzera kalte handiak ekartzen dituztelako.

“Eguzkia hartzen hasi aurretik solarium sesio batzuk hartzea gomendatuko nuke, azala prestatzeko. Eguzkia hartzeko filtro altuko kremak erabiltzea ere bai; eguzkitan aldiko denbora gutxi egitea, eta sekula ere ez eguerdiko orduetan. Eguzkia hartzeko ordurik onenak goizeko eta iluntzekoak dira. Ondorenerako, komenigarria izaten da dutxatu eta krema kalmante-
ren bat egitea”.

· PROGRAMAZIOA ·




ATB oporretan

Datorren astetik aurrera, ATBk udako oporrak hartuko ditu. Beraz, uztailaren 23tik abuztuaren 30a bitartean ez duzue telebista emanaldirik izango. Abuztuaren 30ean hasiko da ohizko programazioa, ordutegi berarekin, baina aurpegi berrieekin. Eguerdiko 1.30etan eguerdiko informatiboa eta arratsalde partean informatiboa, eguneko programa eta astezko zinea. Ez ahaztu! Ordurarte eta ondo pasatu opor egunak!

· KOMIKIA ·

Taipiñi Taldea



· SOLUZIOAK ·

Dorre beltzak.
JEROGILIFIKOA
zik. 8. Galtza. 12. Obus. 18. To.
Kiroiak. 4. Omiti. 5. La. 6. Orto-
Bertikalak 1. Nazioak. 2. Iruditu. 3.
Uzt. 19. Kukusoak.
Lo. 14. Oñib. 15. Tz. 16. Ara. 17.
8. Gr. 9. Zuri. 10. Bat. 11. Idoro. 13.
Horizontalak 1. Nikole. 7. Arima.
GURUTZEGRAMA

MENDIOLA erretegia

ABUZTU OSOAN ZABALIK (Astelehenetan itxita)

Paraje eta sukaldaritza paregabea!

Bazkaltzeko: 12.30etatik 3.30etara

Afaltzeko: 7etatik 11etara

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



SUKALDE LILURAGARRIAK!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

URRETXU

Tfnoa: 72 50 75

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42